



UNITATE DIDAKTIKOAREN GIDOIA



FILMA IKUSTERA JOAN AURRETIK IRAKASLEENTZAKO PROPOSAMENAK

1. Fitxa teknikoa
2. Sinopsia
3. Elkarrizketa lantzeko aholku metodologikoak
4. 1976ko testuinguru historikoa Europan eta Euskadin
5. Giza eskubideen bilakaeraren sarrera laburra eta eskema historikoa



HITZ EGIN DEZAGUN FILMA IKUSI ONDOREN IKASGELARAKO PROPOSAMENAK

6. Zein da filmaren gaia?
7. Pertsonaien deskribapena eta analisisa
8. Gidoia. Dokumentala eta fikzioa
9. Hitz egin dezagun filmari buruz:
 - Familia-harremanak
 - Grebarako eskubidea
 - Askatasun osoz biltzeko eskubidea
 - Adierazpen-askatasuna
 - Prentsa-askatasuna
10. Egin dezagun collage bat garai hartako egunkarien lehen orrialdeekin.
Idatz dezagun inpartziala eta objektiboa iruditzen zaigun albiste bat gertakariei buruz.



**FILMA IKUSTERA
JOAN AURRETIK
IRAKASLEENTZAKO
PROPOSAMENAK**



1. FITXA TEKNIKOA

Produktore eragileak	PAKO RUIZ OSKAR BAÑUELOS LARA IZAGIRRE ASIER BILBAO
Produkzioa	SONORA ESTUDIOS GARIZA FILMS ZARAMAGA FILMS
Zuzendaria	VÍCTOR CABACO
Gidoilariak	JUAN IBARRONDO HÉCTOR AMADO
Jatorrizko ideia	OSKAR BAÑUELOS
Fotografia-zuzendaria	GAIZKA BOURGEAUD
Musika	JOSE LUIS CANAL
Muntaketa	ALVARO HERRERO
Iraupena	90'

AKTOREEN ZERRENDAA

Begoña	Amaia Aberasturi
Ana, Begoñaren ama	Ruth Diaz
José Luis, Begoñaren aita	Alberto Brezal
Eduardo	José Manuel Seda
Mikel, Begoñaren mutil-laguna	Mikel Iglesias
Loli, migratzailea eta Ana eta Begoñaren laguna	Oti Manzano
Gobernazio-ministroa	Pepe Penabade



Bigarren
Hezkuntza eta
Batxilergoa
+ 13 urte



**FILMA IKUSTERA
JOAN AURRETIK
IRAKASLEENTZAKO
PROPOSAMENAK**



2. SINOPSISIA

Martxoaren 3an, lan-baldintza duinak eskatzeko hainbat hilabetetan greban egon ondoren, borrokan ari ziren enpresetako langileak ordezkatzeko zituzten batzordeek greba orokorrerako deialdia egin zuten Gasteizen. Hiri horretan, mugimendu asanbleario bat sortu zen, eta Gobernuak kezkatu zegoen, mugimendu hori Espainiako Estatu osora zabaltzeko aukeraren beldur.

Zaramaga langile-auzoko San Frantzisko elizan, milaka langile bildu ziren batzarra egiteko. Kanpoan beste pertsona asko eta asko elkartu ziren, eta, erdian, Polizia Armatuko ehun bat agente kokatu ziren.

1976ko martxoaren 3ko gertakarietan, poliziak bost langile hil zituen, greba luze baten ondoren. Begoñak, erdi-mailako klaseko gazteak, zuzen-zuzenean biziko ditu "inoiz ezer gertatzen ez den hiria" astindu zuten gertakari haiek. Gero eta latzagoa den gatazka horretan, Begoñak eta haren familiak zer alderekin bat egin aukeratu beharko dute. Azkenean, sarraskiaren ondoren, Begoña, hiria eta herrialde osoa inoiz ez dira lehengo berak izango.

3. UNITATE DIDAKTIKOA LANTZEKO PROPOSAMENAK. AHOLKU METODOLOGIKOAK

Proposamen metodologiko honek elkarriketa du oinarri, eta, azken batean, etika biziko prestakuntza da.


Pentsamendu-trebetasunen zerrenda bat eta **zer galdera egin ditzakegun, nola egin ditzakegun eta zertarako** erakusten duen beste zerrenda bat eskainiko dizkizuegu.

Elkarriketaren bidez, garapen intelektualerako eta pertsonenganako errespeturako beharrezkoak diren prozedurak eta jarrerak jartzen dira abian, eta bizikidetzan on baterako entrenamendua bultzatzen da.

KLIK



TESTU
OSOA.
TESTUA ETA
GALDERAK





**FILMA IKUSTERA
JOAN AURRETIK
IRAKASLEENTZAKO
PROPOSAMENAK**



4. 1976KO TESTUINGURU HISTORIKOA EUROPAN ETA EUSKADIN

Garai hartan, zinema-aretoetan filmak ikusi aurretik, “El Nodo” izeneko albistegia ematen zuten, eta, bertan, albistetik azpimarragarrienak kontatzen ziren garai hartako erregimenaren, hots, diktadura frankistaren ikuspegitik.

KLIK



Ikus dezagun zer kontatzen zigun Nodoak garai hartan.
00:00:25etik 00:01:54ra.

BESTE GERTAKARI BATZUK:

- 1976. urtean, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1966ko abenduaren 16an onartutako “Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna” jarri zen indarrean. Bertan, 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean aldarrikatutako giza eskubideen nazioarteko ia tresna guztiak daude jasota. Itun hori oso garrantzitsua izan zen, herrialde sinatzaileek beharrezkoak diren lege-aldaketak egin behar izan baitzituzten giza eskubideak errespetatu eta betetzeko.
- Franco 1975ean hil zen. Espainiak 1976an eman zion hasiera demokraziarako trantsizioari. Arias Navarrok behartuta dimititu ondoren, Juan Carlos I.a erregeak Adolfo Suárez izendatu zuen Gobernuako presidente, “egitura frankistak desagiten has zedin”. Suárezek bere belaunaldiko politikariekin osatu zuen Gobernuak, demokrazia abian jarri behar zela jakinik. 1976ko uztailaren 5ean egin zuen karguaren zina.
- Espainiako Gorte frankistek “Erreforma Politikoaren Legea” onartu zuten, eta, horren ondorioz, ordezkari politikoaren sistema nabarmen eraldatu zen. Izan ere, herri-subiranotasuna ezarri eta “demokrazia organikoaren” barrukoak ordezkatu zituzten erakunde batzuk sortu ziren. Erabateko demokraziarako bidea ireki zen.

DONOSTIAKO GIZA ESKUBIDEEN 18. ZINEMALDIA. 2021

Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Saila eta Donostia Kultura


**Bigarren
Hezkuntza eta
Batxilergoa
+ 13 urte**



FILMA IKUSTERA JOAN AURRETIK IRAKASLEENTZAKO PROPOSAMENAK



- 1976an, Europar Batasuneko herrialdeak Frantzia, Britainia Handia, Alemania, Italia, Herbehereak, Belgika, Luxenburgo, Danimarka eta Irlanda ziren. Herrialde demokratiko horiek sufragio unibertsalaren bidez aukeratzen zituzten beren ordezkariak.
- 1977an, Amnistiaren 46/1977 Legea aldarrikatu zen. Lege horretan, preso politikoen amnistia ere jaso zen.
- Espainian, lehen hauteskunde demokratikoak 1977ko ekainaren 15ean egin ziren. Euskadin, EAJ, Euskadiko Ezkerra, UCD eta PSOE alderdiak izan ziren garaileak, garaiko prentsan irakur dezakegunez.
- 1978an, Espainiako Konstituzioa onartu zen.
- 1959an sortu zen eta frankismoari aurre egiteko erakunde independentista, abertzale, sozialista eta iraultzaile gisa definitzen zen ETA erakundeak bere jarduera terroristarekin jarraitu zuen, eta jarduera hori areagotu egin zuen. Zehazki, hamabost atentatu baino gehiago egin zituen 1976an. 2011n desegin zen arte, erakundeak 800 atentatu hilgarri baino gehiago egin zituen.
- 1975ean, Batallón Vasco Español (BVE) izeneko eskuin muturreko erakunde terrorista parapoliziala sortu zen. 1990. urtera arte, 18 erailketa egozten zaizkio erakunde horri.
- Aldi horretan, Estatuko aparatu batzuk behar bezala garbitu gabe zeuden oraindik, eta garai frankistako metodoak erabiltzen jarraitzen zuten (torturak, atxilotaketak, poliziaren kargak eta abar).
- 1a urtebeteko bidaiaren ondoren, NASaren "Viking 2" izeneko espazio-ontzia Martera iritsi zen, eta planetari, bertako atmosferari eta zoruari buruzko informazioa eta gainazal harritsuaren koloretako argazkiak bidaltzen hasi zen.
- Steve Jobs-ek, Steve Wozniak-ek eta Ronald Wayne-k Apple enpresa multinazionala sortu zuten. Ameriketako Estatu Batuetako enpresa horrek Kalifornian zuen egoitza, eta ekipamendu elektronikoak eta software-ekipamenduak diseinatzeko eta fabrikatzeko zituen.



Diputatuen Kongresuko jarlekuen banaketa

165 UCD	11 PDC	1 ERC
118 PSOE	8 PN	1 EE
20 PCE	6 PSP	1 CAIC
16 AP	2 UC-DCC	1 CIC



FILMA IKUSTERA JOAN AURRETIK IRAKASLEENTZAKO PROPOSAMENAK

5. GIZA ESKUBIDEEN BILAKAERAREN SARRERA LABURRA ETA ESKEMA HISTORIKOA



“Gizaki guztiak aske jaiotzen dira, berdinak izanik duintasunari eta eskubideei begira; eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean senidetasunez jokatu behar dute”. (Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, 1948)



Giza Eskubideak pertsona guztiok gizaki garen aldetik ditugun eskubideak dira.

Dena dela, giza eskubideak pertsona guztiak pertsonak direlako jaiotzen direnetik dituzten eskubideak badira, zergatik eman behar zaizkie lege-testu eta esparru juridiko batzuk? Giza eskubideak gauzatzeko, kode batean bildu behar dira eta horretarako legitimazioa duten erakundeek onartu behar dituzte. Horretan datza testu juridikoen garrantzia. Testu juridiko horiek parlamentuetan berresten direnean edota gobernuak sinatzen dituztenean, gobernuak Estatuaren barruko legeak nazioarteko testuetara egokitze konpromisoa hartzen dute, eta nazioarteko auzitegien epaiak betearazi behar dituzte. Estatuak bermatu, errespetatu eta babestu egin behar dituzte.

Pertsona bakoitzak bere eskubideak errespetarazi behar dituen bezala, gainerakoen eskubideak errespetatu behar ditu, norberaren eskubidea beste pertsona baten eskubidea hasten denean amaitzen baita.

Eskainiko dizuegun eskeman, Babilonian hasiko gara, Hammurabiren kodearen (K.a. 1790) garaian. Kode hori giza eskubideen esparru bat sortzeko lehen ahalegina izan zen, eta, gaur egun, atxikitako herrialdeek zaindu, errespetatu eta defendatu egin behar dituzte eskubide horiek. Ihering legelari eta filosofo alemaniarrek dioenez, “Oraindik borroka-eremu asko daude zabalik, eta beste asko zabalduko dira. Eskubideak haien alde borrokatuz lortzen dira”.

KLIK





HITZ EGIN DEZAGUN FILMA IKUSI ONDOREN IKASGELARAKO PROPOSAMENAK

6. ZEIN DA FILMAREN GAIA?

Biribilean eseri, eta filma hitz batean definitzeko eskatuko dugu.

Hitz lagungarrien zerrenda: Giza eskubideen defentsa / Grebarako eskubidea / Soldata-hobekuntza aldarrikatzea / Justizia soziala / Amorrua / Mina / Poliziaren errepresioa / Prentsa-askatasuna / Adierazpen-askatasuna.

7. PERTSONAIEN DESKRIBAPENA ETA ANALISIA:

Biribilean eserita jarraituko dugu, elkar hobeto ikusteko. Denon artean, filmeko protagonistak idatziko ditugu arbelean, eta labur-labur deskribatuko ditugu.

- Begoña: **Amaia Aberasturi**
- Ana, Begoñaren ama: **Ruth Diaz**
- José Luis, Begoñaren aita: **Alberto Brezal**
- Eduardo, enpresaburuen kudeatzailea: **José Manuel Seda**
- Mikel, Begoñaren mutil-laguna: **Mikel Iglesias**
- Loli, migratzailea eta Ana eta Begoñaren laguna: **Oti Manzano**
- Gobernazio-ministroa: **Pepe Penabade**



8. GIDOIA: FIKZIOA ETA DOKUMENTALA

Filma 2016. urteko produkzio bat da, 1976. urtean girotua.

Zati bat zinema-formatuan filmatu zen erabat, eta beste zati bat, berriz, super 8 kamerarekin (formatu horrek 1976ko film-testura ematen du).

Zati dokumentala Radio Televisión Española-ko dokumentu-funtsetik lortutako artxibo-irudiez osatuta dago.

Poliziaren irudiak eta audioak errealak dira.





HITZ EGIN DEZAGUN FILMA IKUSI ONDOREN IKASGELARAKO PROPOSAMENAK

9. HITZ EGIN DEZAGUN FILMEKO GAI BATZUEI BURUZ:

- Familia-harremanak
- Grebarako eskubidea
- Askatasun osoz biltzeko eskubidea
- Adierazpen-askatasuna
- Prentsa-askatasuna

FAMILIA-HARREMANAK

- Zein da Begoñaren amaren eta aitaren rola?
Biak etxetik kanpo lan egiten al dute?
- Nolakoa da familiako kideen arteko harremana?
Ba al dago zintzotasunik?
- Nola jokutzen du Begoñaren aitak alaba bilera klandestinoetan ikusten duenean?
- Nolakoa da Loli migratzailearen eta familiaren arteko harremana?



GREBARAKO ESKUBIDEA DERECHO A LA HUELGA

- Zein da negoziazioek aurrera ez egitearen eta grebarako deialdia egitearen arrazoia?
- 1976. urtean, langileek astean 6 egunetan lan egiten zuten, eta igandean hartzen zuten atseden.
Zer urtetan lortu ziren asteko 40 orduak? (1919)
- Ba al zenekiten Langilearen Estatutua dagoela? 12., 23. eta 34-38. artikuluetan, lanaldia ezartzen da.
- Eta ba al zenekiten Espainiako Konstituzioaren 40.2 artikuluan honako hau ezartzen dela: *“botere publikoek lanbide-heziketa eta lanbide-birmoldaketa bermatzeko politika zehatza sustatuko dute, laneko segurtasuna eta higiena zainduko dute, eta beharrezkoa den atseden bermatuko dute lanaldiaren mugaketaren, ordaindutako aldizkako oporren eta zentro egokien sustapenaren bidez”*?
- Ba al zegoen grebarako eskubidea 1976an?
- Zer aldarrikatzen zuten langileek?
- Ba al dago grebarik gaur egun?
Filmean aldarrikatzen diren gauza berak aldarrikatzen al ditugu?





HITZ EGIN DEZAGUN FILMA IKUSI ONDOREN IKASGELARAKO PROPOSAMENAK



10. GURE PROPOSAMENA

- Garai hartako egunkarietako irudi eta artikuluekin collage bat egitea.
- Martxoaren 3ko gertakarietako buruzko albiste "objektibo" bat sortzea.
- Giza eskubideek historian izan duten bilakaeraren irudi eta letrekin collage bat egitea.

ASKATASUN OSOZ BILTZEKO ESKUBIDEA (GIZA ESKUBIDEEN ADIERAZPENAREN 20. ARTIKULUA)

- 1976an ba al zegoen askatasun osoz biltzeko eskubidea?
- Zein da Espainiako Konstituzioaren barruan eskubide hori aitortzen duen artikulua? (20)
- Zer iritzi duzue poliziak San Frantzisko elizan batzartuta zeuden pertsonekin izan zuen jokabidearen inguruan?
- Noren aginduak jaso zituen poliziak?
- Zein da herrialde bateko polizia-kidegoaren funtzioa?
- Zuen ustez, zergatik jokatu zuen poliziak hain modu basatian?
- Zer iritzi duzue batzarra utzarazten parte hartu zuten polizien arteko elkarriketa errealtari buruz?

"Bi mila tiro baino gehiago egin ditugu; kalea nola dagoen pentsa dezakezu. Eskerrik asko! Zerbitzu ona! Historiako jipoirik handienean parte hartu dugu. Sarraski bat gertatu da hemen. Txanda".

ADIERAZPEN-ASKATASUNA / PRENTSA-ASKATASUNA

- Zenbat egunkari zeuden urte horretan Euskadin? Eta Espainian?
- Ideologia desberdineko egunkariak al ziren? Zein da filmean ikusi duzuen hobekien islatzen duen titulua?
- Lehen orrialdeko tituluak konparatuta, nolako ikuspegia ematen diote albisteari? Zer alde daude tituluaren artean?
- Pentsatzen zuena askatasun osoz idatz zezakeen kazetari bat al zen Begoñaren aita?
- Zergatik harritu ziren José Luisen lankideak grebari buruzko iritzi-artikulua idatzi zuenean? Ba al dago iritzi hori izatera behartzen zuen zerbait? Zer?
- Zer iritzi duzue José Luisen erabakiaren inguruan?



Unidad
arratsaldean
ateratzen zuten
egunkari bat zen



Giza eskubideen bilakaeraren eskema historikoa

**FILMA IKUSTERA
JOAN AURRETIK
IRAKASLEENTZAKO
PROPOSAMENAK**

K.a 1970-1750

Babilonia
HAMMURABIREN KODEA

K.a 1300

Sinai mendia, judu-kristaua
HAMAR AGINDUAK

K.a V. mendea

Erromatar Inperioa
XII TAULEN LEGEA

K.a 594

Grezia
SOLOEN KODEA

529-534

Erromatar Inperioa
CORPUS JURIS CIVILIS

1215

Ingalaterra
**JOAN LURGABEAREN
MAGNA CARTA**

1689

Ingalaterra
THE BILL OF RIGHTS

1776

Ameriketako Estatu Batuak
VIRGINIAKO KONSTITUZIOA

1787

Ameriketako Estatu Batuak
AEB-ETAKO KONSTITUZIOA

1789

Frantzia
FRANTZIAKO IRAULTZA

1. BELAUNALDIKO eskubideak

Eskubide zibilak, adierazpen-askatasuna, elkartzeko eskubidea eta abar. Eskubide indibidualak dira.

Estatuak ez du esku hartzen

1789

Frantzia
**GIZAKIAREN ESKUBIDEEN
FRANTZIAKO ADIERAZPENA**

2. BELAUNALDIKO eskubideak

Eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak.

Estatuak esku hartzen du

1939-1945

**BIGARREN MUNDU
GERRA**

1948

Europa
GIZA ESKUBIDEEN ADIERAZPEN UNIBERTSALA

2. Mundu Gerrako jardunbideek eragindako lazturaren ondorioz (holokaustoa, torturak, deportazioak, bonba atomikoa, gizakiaren degradaziorik handiena), eta beste inoiz ez gertatzeko asmo tinkoarekin, giza eskubideak nazioarera zabaltzeko, eta estatuek, itunei lotetsita geratu zirenez gero, bertako herritarren zein atzerrikoen eskubide unibertsalak bermatu behar izan zituzten.



1966

Europa

ESKUBIDE ZIBIL ETA POLITIKOEN ALDEKO ITUNAK SORTU ZIREN

Itunei atxikitako herrialdeek errespetatu egin behar zituzten, horretarako legeak aldatu behar bazituzten ere. Kontrol-organoak zeuden. 1976an jarri ziren indarrean. Eta 167 estatuk berretsi zituzten.

8. ARTIKULUA. ASKATASUN SINDIKALA ETA GREBARAKO ESKUBIDEA

Europa

ESKUBIDE EKONOMIKOAK, SOZIALAK ETA KULTURALAK

Itunei atxikitako herrialdeek errespetatu egin behar zituzten, horretarako legeak aldatu behar bazituzten ere. Kontrol-organoak zeuden. 1976an jarri ziren indarrean. Eta 166 estatuk berretsi zituzten.

7. ARTIKULUA. LAN-BALDINTZA BIDEZKOAK ETA EGOKIAK IZATEKO ESKUBIDEA

1969

Amerikako Estatu
Erakundea

GIZA ESKUBIDEEN AMERIKAKO HITZARMENA

1972

Unescoren Adierazpena

GIZAKIAREN ONDASUN KOMUNERAKO ESKUBIDEA

Oso interesgarria da "ondasun komuna" giza eskubidetzat hartzen duen ideia. Horren arabera, elementu batzuk funtsezkoak dira giza duintasuna garatzeko (eta kolektibo jakin batzuen, hala nola herri indigenena), hala nola ura, kultura-ondarea edota internet erabiltzeko aukera. Elementu horiek pribatizatu ordez, kolektibizatu egin behar dira ezinbestez.

1977

1977ko Adierazpena

INGENIARITZA GENETIKOAREN INGURUKO ESKUBIDEAK

1981

Afrika Bateratzeko Frontea

GIZA ESKUBIDEEN ETA HERRIEN AFRIKAKO GUTUNA

1986

1986ko Adierazpena

GARAPENERAKO ESKUBIDEA

1990

Nazio Batuak

DATU PERTSONALAK BABESTEKO ESKUBIDEAK

1992

Rioko Adierazpena

INGURUMENERAKO ESKUBIDEA

1993

Viena

GIZA ESKUBIDEEN MUNDUKO KONFERENTZIA. Vienako Adierazpena eta ekintza-programa, 1993ko ekainaren 25ean onartuak

Munduko Konferentzia horretan, giza eskubideen ZATIEZINTASUNAREN eta interdependentziaren PRINTZIPIOA ezarri zen handitasunez. Bi itunek autodeterminaziorako eskubidea eta oinarritzko giza eskubideak baliatzeko genero-ekitatea sustatu zituzten.

1999

Unescoren Adierazpena

BAKERAKO ESKUBIDEA